

ssez faire» sendatzea, hots, kreditoaren banaketa esku gutxi hoietatik kendu ta kapazidadeen neurrian zabaltzeko moduan jartzea. Beraz, alde hontatik bat: ezarritako sistema kapitalistari bizkortasuna eman nahi izandu zaio; bi, planteamendu honek kapitalismoa moralizatu nahi izan du, horregatik, duan moral kutsuagatik, demagogia egiteko prestatzen da (estadia bere menpean duten berreun familiak eta aitatuaz, noski); iru, utopikoa da, ez baidu sentidurik gizarte guztiaren eraberritzearen barruan ez bada (lege-gaia, azkeneko, oso legundua iritxi da).

Bigarrenkoz: hori ikusirik, sistemaren barruan egiten dan aldaketa berterik ez dala ikusirik, ba dira pauso bat eman dutenak, sistema nolabait gainzkatzeko esperantzan. Pauso hori bankaren naziotzea eskatzea izan da. Garbi mintzatzeko estadukeria proposatu dute soluziotzat. Ematen dute zer pentsaturik, sozializatzea, gizarteratzea, esaterakoan estadutzea adierazten dutenak. Zergatik izan diteke bankaren naziotzea estadukeria? Zenbait kontestuetan konponketa izan beharrean gaitz berrien iturria izan ditekealako. Izan ere kreditoa estadiak berak zuzen zuzenean banatu ezkeru, kreditoa erabat politikatuko litzake. Hori, berez, tresna egokiena izan diteke. Baiñan hortara iritxi aurretik, zenbait galdera behar bezela erantzunda geldituta-koan. Nork eta nola erabakitzen du estadiaren interesa? Estadiaren izenean zer kriterio erabiliko dira banaketa hoiek egiterakoan? Hortxe dago koska. Galdera hauei erantzuna eman aurretik bankaren edo beste edozein gauza- ren, estadutzeak ez du sentidurik. Ez du sentidurik, jakiña, herriarentzat. Ba- kan batzuentzat izan lezake sentidua, ta gainera aundia, nork ukatu?

R. A.

ERMUA'ko asmo bat.

IDADZLEEN ALKARTEA



Taldeka ez dezakegula lanik egin euskaldunok, entzun dut behin baiño sarriago. Ba, ba da ordua, diot nik.

Beste guztiak bezela, bateratuta daukagu guk ere Indarra. Horregatik egin nahi da, hain zuzen, idazleen alkar-te bat. Alkar-te hau, ene ustez, ez litzake, baitipait, idazleen eskubi-deak defenditzeko. Hortarako ere bai, noski. Halere, uste dut gure euskeraren egoerak hori baiño egikizun ausartagorik eskatzen duela. Idazle guztiok baturik, euskera literarioaren batasunaren alde jokatu behar dugu. Hortarako jaio da Alkar-te hau. Hortarako eta idazleok dauz-kagun erantzukizunak eta betebeharrak kunplitu ahal izateko.

Jalo da, esan dut. Baiña, ez, oraindik ez da jalo. Ermua'ko Euskal-Idazle-en Jardunaldien azken egunean, Juan San Martin mintzatu zan hontaz. Hitzegin genuen eta hitzeman giñan, komeni zanez, Alkar-te hori sortu behar zala. Eta batzorde bat izendatu zan horren oiñarrizko estatutoak eratu ditzan. Behar dan orduan, emango da honen berri.

Alkarte honen aldekoa naiz, erabat. Bentaja asko ikusten diot. Izan ere, zuzenbidezko agindu bat legez ta onez betearazterik ez dagoenean, onuragarria da ez bakarrik goitik-beherako indarra baizik zearka ta aldamenekoen eragiñez egiten dana ere bai. Ondo edo gaizki, presioka jokutzen da gaur. Diodanaren argigarriztat puntu konkretu bat azaltzearren, lot nakion batasunari. Hara: Euskaltzaindiak ez dauka agindu-bidez lanegiterik. Borondate onaren eskale bat biurtu dugu, zeren idazle bakoitzak nahi duenean jaramon egin ohi dio, ta gogoko etzaionean, baztertu.

Esku-loturik ikusten dut Euskaltzaindia, ta, beharbada, legerik ematen ere ausartzen ez dala. Ta, aldiz, gaur idazlerik gehienak, ene ustez, batasunaren alde gaude. Biltzea daukagu, ta Euskaltzaindiaren erabakiak oro (ditezkeanean) onartuaz, baztertu ditzagun onartzen ez dituztenak. Gure egikizun askok, egun, holako esijentzia eskatzen duelakoan nago.

Alkarte hau on egitera deitua dago. Ta ez zait batere zailla euskeraren batasun literarioren esijentzia ta eskabidea bezela kusteaa Alkarte onen sorztea. Ba da hori ere, ene ustez.

J. M. T.

BIOLENTZIA... BEHIÑERE EZ?



Aita Santuak oraintsu Ameriketa'ra egin duen ibillaldi honetan esandakoak entzun ditugunean, askotxori lurreratu egin zaie anima. Zituzten itxaropenak galdu edo egin dituzte. Eta honela diote tristeki: «Populorum Progressio» enziklikatik oso atzean gelditu duk». Hala ote?

«Biolentziaren Aita Santuak» biolentzia gaitzetsiaz esan dituen hitzak, «Populorum Progressio» bere enziklikaren 29, 30, 31 ta 32 atalak bere tokian jartzeko izan dira, atal hoietan ohin hartuta, oso aurrera joanak baiziren askotxo. Aurreraegi agian.

Aita Santuak biolentzia gaitzetsi du. Biolentzia gaitzetsi erreboluzio-taktika bezela eta herri baten eragin-bide normal bezela.

Eleizak beti onartu duen Dotriñaren baitan ez da, ezin diteke izan, biolentzi-arazo hau, taktika-arazo, etika-arazo baiño.

Hementxe, hain zuzen, kristau leial ta erresponsabilidadedun bateri sortzen zaion prolema: injustizi-egoera baten aurrean, ekonomi-xixtima desberdin eta zanpatzaille baten aurrean, minori aprobeitatzaille ta tiranidun baten onura zaitzen duen politiku-egitura baten aurrean... zein postura hartu behar du, zein bide?

Moral-prolema ta printzipioak beti dira baliodun, eta postura sendoa hartu du Aita Santuak heurrei dagokienez. Eta honela dio «Populorum Progressio»-n: «Matxinada reboluzionario batek —tiranikasua argi ta luze batean ez